

MERKATARITZA DATUETAN

2014KO 4. HIRUHILEKOA



2015KO OTSAILAK 6

Aurkibidea

1	Salmenten bilakaera.....	3
2	Gizarte segurantzako afiliazioen bilakaera	5
3	Kontsumitzailearen konfiantzaren adierazlearen bilakaera	9
4	Kontsumorako prezioen indizearen bilakaera.....	11

1 SALMENTEN BILAKAERA

Tituluak:

- Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentek %1,3-eko hazkundera izan zuten 2014ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuz.

- Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizea %1,2 nominala igo da

Eustaten datuen arabera, 2014ko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %1,3 gehitu ziren, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Gasolindegia sartu gabe, sektorearen salmentak %1,2 gehitu ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenta-indizeak %1,2 nominala egin du hobera, urtaro-eraginak kenduta.

	EUSKAL AE-KO TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA URTE ARTEKO ETA HIRUHILE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA			
	4. HIRUHILEKOA. 2014			
	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t/t-4	t/t-1	t/t-4	t/t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	1,3	1,2	2,0	0,6
Araba	3,9	2,0	5,2	2,3
Bizkaia	0,7	2,4	1,2	0,9
Gipuzkoa	1,0	-0,8	1,8	-0,7
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	0,0	2,4	-0,2	1,8
Elikagaietan espezializatuta	-0,7	-0,1	-1,3	-0,9
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	0,5	2,4	0,5	1,8
Beste produktuak	2,2	1,3	2,7	1,4
Pertsonen hornikuntza espezializatuta	2,2	-1,1	2,0	-2,4
Etxearen hornikuntza espezializatuta	7,4	3,6	9,2	3,2
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	-1,6	2,7	-1,3	-0,2
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	-0,1	0,0	0,4	-0,7
Automoziorako erregaia	1,3	0,6	8,6	3,4
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	1,2	1,8	1,4	1,5

t/t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t/t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

1.Taula. Iturria: Eustat.

Elikagaien salmenta nominalak lehengoan (%0,0) 2014ko laugarren hiruhilekoan; gainerako produktuetan %2,2ko gehikuntza; automobilgintzarako erregaian %1,3koa, beti ere 2013ko aldi beraren aldean.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %0,7 jaitsi zen; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %0,5 gehitu. Gainerako produktuetan, pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %2,2 gehitu eta etxe ekipamenduan %7,4; kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan %-1,6. Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %-0,1. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean: Bizkaian %+0,7; Gipuzkoan %+1,0; Araban %+3,9.

Prezio finkoetan, txikizkako merkataritzaren salmentak %2,0 gehitu ziren laugarren hiruhilekoan.

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %1,4ko gehikuntza erreala izan zuten aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2014ko laugarren hiruhilekoan Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealetan %0,6ko gehikuntza dugu hirugarrenaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

Elikagaien txikizkakoan jaitsiera erreala %0,2; gainerako produktuetan %2,7ko gehikuntza erreala, 2013ko hiruhileko beraren aldean; automobilgintzarako erregai-salmentetan %8,6ko gehikuntza.

Elikagaien txikizkakoan, urte artean %-1,3 dugu espezializatuan ; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %+0,5. Kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan %-1,3. Gainerako sektoreetan, hazkundeak. Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %2,0 gehitu, Etxeko ekipamenduan %9,2; Gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %0,4.

Hiru lurraldeetan gehikuntzak salmentetan termino errealetan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean: Bizkaian %1,2, Gipuzkoan %1,8, Araban %5,2.

Euskal AE osoan, 2014ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, txikizkako sektorean landunen kopurua %0,5 murriztu zen 2014ko laugarren hiruhilekoan.

Urteko balantzea

Urte osoan, txikizkako merkataritzaren salmentek %0,4ko gehikuntza nominal metatua izan dute. Gasolindegia sartu gabe, gainerako salmentetan %0,7ko gehikuntza, 2014ko datu metatuetan 2013koen aldean.

Termino errealetan, sektorea osorik %0,5 gehitu da; berdin (%0,5) gasolindegirik gabe.

Urte osoan, tasa nominaletan: Gipuzkoan %+1,3 , Araban %+1,3, Bizkaian %-0,4. Prezio finkoetan: Araban %+1,4, Gipuzkoan %+1,5, Bizkaian %-0,3.

Euskal AEn, 2014an, aurreko urteko batez bestekoaren aldean, txikizkako merkataritzako enpleguaren murrizketa: %1,2.

	EAE-KO TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA					
	URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA					
	UNEKO PREZIOAK			PREZIO FINKOAK		
	2014	2013	Δ%	2014	2013	Δ%
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera						
Euskal AE	94,9	94,5	0,4	88,0	87,5	0,5
Araba	98,2	96,9	1,3	88,9	87,7	1,4
Bizkaia	94,0	94,3	-0,4	87,8	88	-0,3
Gipuzkoa	94,8	93,6	1,3	87,8	86,5	1,5
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera						
Elikagaiak	93,2	96,0	-2,9	86,6	88,9	-2,7
Beste produktuak	93,7	90,4	3,6	89,2	86,7	3
Automoziorako erregaia	108,0	109,9	-1,8	86,6	85,9	0,8
SALMENTEN INDIZEA zerbitzугunetik gabe	93,5	92,8	0,7	88,1	87,6	0,5

2.Taula. Iturria: Eustat. Lantzea: Ikusmer.

2 GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA

Tituluak:

- Urrian, azaroan eta abenduan afiliazioetan jarraitutako hazkundera ematen da hiru lurraldeetan.
- Urte arteko alderaketa: txikizkako eta handizkako sektoreen afiliazioen hazkundera, ibilgailu eta ordezk piezen sektorean jaitsiera motela

3. taulan 2014ko 4. hiruhilekoari dagokion lurralde historikoen eta erkidegoaren afiliazioen bilakaera adierazten da.

Handizkarien zein txikizkarien sektoreetan, EAEak datu positiboak aurkezten ditu, hilabetero gehikuntza jarraituak ematen direlarik. Txikizkarien kasuan hazkunde hau lurralde eta hilabete guztietan ematen da, handizkarietara dagokienez Arabak pairatzen dituen datu negatiboak nabarmendu behar dira, hauek Bizkaiaren eta Gipuzkoaren datu positiboekin konpentsatzen direlarik.

Ibilgailu eta ordezk piezen sektoreari dagokionez, Bizkaiko eta Gipuzkoako portaera negatiboa da, aurreko hiruhileko datuekin alderatuz afiliazioak jaisten direlarik. Arabak bere aldetik afiliazioak mantentzen ditu.


Termino orokorretan, merkataritza sektorerako eta EAE osoa kontuan izanik, hiruhileko honetan afiliazioen gehikuntza eman da, lurralde guztiek zenbateko positiboak aurkezten dituzte hilez-hile.

LURRALDE HISTORIKOAK. HILETIK HILERAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2014KO 4.HIRUHILEKOA

	ARABA	ALDAK.	GIPUZKOA	ALDAK.	BIZKAIA	ALDAK.	EAE	ALDAK.
Handizkariak								
14/10	5.791	%0,47	12.768	%0,10	20.413	%0,26	38.972	%0,24
14/11	5.778	-%0,22	12.862	%0,74	20.550	%0,67	39.190	%0,56
14/12	5.748	-%0,52	12.842	-%0,16	20.641	%0,44	39.231	%0,10
Txikizkariak								
14/10	10.329	%2,21	24.436	%0,29	46.233	%1,07	80.998	%0,98
14/11	10.626	%2,88	24.882	%1,83	46.824	%1,28	82.332	%1,65
14/12	10.828	%1,90	25.259	%1,52	47.579	%1,61	83.666	%1,62
Ibilg. eta ord. piezak					6.273			
14/10	2.018	-%0,05	4.297	%0,23	6.267	-%0,10	12.582	%0,02
14/11	2.023	%0,25	4.315	%0,42	6.268	%0,02	12.606	%0,19
14/12	2.019	-%0,20	4.265	-%1,16	6.262	-%0,10	12.546	-%0,48
Guztira								
14/10	18.138	%1,39	41.501	%0,22	72.913	%0,74	132.552	%0,67
14/11	18.427	%1,59	42.059	%1,34	73.642	%1,00	134.128	%1,19
14/12	18.595	%0,91	42.366	%0,73	74.482	%1,14	135.443	%0,98

3.taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

1. grafikoan merkataritzako afiliazioen bilakaera ikus daiteke, metatutako EJSNren 45, 46 eta 47 epigrafeak, 2009ko urtarrilean seriea hasi zenetik., EAE osorako.



1. Grafikoa. Iturria: GSIN. Lantzea: Ikusmer.

Azpisektoreka urte arteko azterketa berdina eginez, 4. taulan adierazten den moduan, handizkarien afiliatioak mantentzen direla hauteman daiteke, Gipuzkoaren eta Bizkaiaren eraginaren ondorioz. Txikizkarien afiliatioen hazkundera berriz, hiru lurraldeetan ematen da. Ibilgailuen sektoreari aipu eginez, datuak negatiboak dira hiru lurraldeetan eta Araban bereziki.

EAE mailan, azpisektoreetako afiliatioak hazi egiten direla hauteman daiteke, handizkarien kasuan azken bost urteetan ez da igoera hau gertatu eta txikizkariet dagokienez azken lau urteetan. Ibilgailu eta ordezkari piezen salmenten sektorean ez da inflexio puntu hau ematen, afiliatioetan atzerakada aurkezten jarraitzen du azken bost urteetan legez.

LURRALDE HISTORIKOAK. URTE ARTEKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2014KO 4. HIRUHILEKOA

Handizkariak	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	C.A.E.
2013ko afiliatioak (abenduaren 31ean)	5.766	12.645	20.544	38.955
2014ko afiliatioak (abenduaren 31ean)	5.748	12.842	20.641	39.231
Aldakuntza	-%0,31	%1,56	%0,47	%0,71
Txikizkariak	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	C.A.E.
2013ko afiliatioak (abenduaren 31ean)	10.392	24.643	46.939	81.974
2014ko afiliatioak (abenduaren 31ean)	10.828	25.259	47.579	83.666
Aldakuntza	%4,20	%2,50	%1,36	%2,06
Ibilg. eta ord. piezak	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	C.A.E.
2013ko afiliatioak (abenduaren 31ean)	2.097	4.267	6.263	12.627
2014ko afiliatioak (abenduaren 31ean)	2.019	4.265	6.262	12.546
Aldakuntza	-%3,72	-%0,05	-%0,02	-%0,64
Guztira	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	C.A.E.
2013ko afiliatioak (abenduaren 31ean)	18.255	41.555	73.746	133.556
2014ko afiliatioak (abenduaren 31ean)	18.595	42.366	74.482	135.443
Aldakuntza	%1,86	%1,95	%1,00	%1,41

4. taula. Iturria: GSIN. Lantzea: Ikusmer.

5. taulan, sektoreka, 2014ko laugarren hiruhilekorako eta EAeko zazpi merkataritza udalerrri nagusientzako, afiliazioen hiletik hilerako bilakaera azaltzen da.

Handizkarien sektorean Barakaldok ezetik udalerrri guztiek hiru hilabetekoa saldo positiboarekin bukatzen dute.

Joera berdina da txikizkarien kasuan, hiru hiriburuek eta Barakaldok hiru hilabeteetan zehar hazkundeak erakusten dituzte, Getxok Irunek eta Laudiok hilabeteren baten jaitsierak pairatzen badituzte ere, aurreko hiruhilekoari dagokionez saldo positiboarekin bukatzen dute.

Ibilgailu eta ordeko piezen sektorean Gasteiz eta Getxo dira afiliazioetan hilabete arteko hazkundearekin bukatzen duten udalerrri bakarrak.

Termino orokorretan eta merkataritza sektorerako, udalerrri guztietan ematen da afiliazioen igoera aurreko hiruhilekoko azken hilabeteko datuekin erkatuz.

UDALERRIAK. HILETIK HILERAKO AFILIZAZIOAREN BILAKAERA - 2014KO 4.HIRUHILEKOA

	VITORIA	ALDAK.	DONOSTIA	ALDAK.	BILBAO	ALDAK.
Handizkariak						
14/10	4.440	%1,00	3.640	-%0,68	5.242	%0,36
14/11	4.414	-%0,59	3.673	%0,91	5.270	%0,53
14/12	4.401	-%0,29	3.687	%0,38	5.252	-%0,34
Txikizkariak						
14/10	8.245	%3,08	8.594	%0,80	13.788	%0,00
14/11	8.505	%3,15	8.832	%2,77	14.037	%1,81
14/12	8.703	%2,33	9.016	%2,08	14.301	%1,88
Ibilg. eta ord. piezak						
14/10	1.542	-%0,39	916	-%0,54	1.408	%0,57
14/11	1.548	%0,39	928	%1,31	1.398	-%0,71
14/12	1.549	%0,06	887	-%4,42	1.397	-%0,07
Guztira						
14/10	14.227	%2,04	13.150	%0,29	20.438	%0,13
14/11	14.467	%1,69	13.433	%2,15	20.705	%1,31
14/12	14.653	%1,29	13.590	%1,17	20.950	%1,18

	BARAKALDO	ALDAK.	GETXO	ALDAK.	IRUN	ALDAK.	LAUDIO	ALDAK.
Handizkariak								
14/10	600	-%2,28	1.043	%0,77	1.339	-%0,89	103	%3,00
14/11	602	%0,33	1.044	%0,10	1.363	%1,79	104	%0,97
14/12	599	-%0,50	1.044	%0,00	1.372	%0,66	102	-%1,92
Txikizkariak								
14/10	4.543	%1,56	2.012	-%0,45	2.476	-%0,72	638	%0,63
14/11	4.644	%2,22	2.048	%1,79	2.512	%1,45	643	%0,78
14/12	4.699	%1,18	2.093	%2,20	2.557	%1,79	641	-%0,31
Ibilg. eta ord. piezak								
14/10	413	-%1,90	138	%1,47	554	-%0,72	107	-%1,83
14/11	407	-%1,45	136	-%1,45	555	%0,18	105	-%1,87
14/12	402	-%1,23	140	%2,94	544	-%1,98	107	%1,90
Guztira								
14/10	5.556	%0,87	3.193	%0,03	4.369	-%0,77	848	%0,59
14/11	5.653	%1,75	3.228	%1,10	4.430	%1,40	852	%0,47
14/12	5.700	%0,83	3.277	%1,52	4.473	%0,97	850	-%0,23

5. taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

6. taulan, laugarren hiruilekoa bukatuta, 2013-2014 eperako sektoreen urtetik urterako alderaketa biltzen da. Txikizkako sektorearen datu positiboak azpimarratzekoak dira, Irunek ezezik udalerrri guztiak afiliazioen hazkundera erakusten baitute. Handizkarien sektoreak bere aldetik, Donostian eta Barakaldon hazkunde lausoak pairatzen ditu, Audio eta Irunen igoera esanguratsuagoak eta Gasteiz, Bilbao eta bereziki Getxon afiliatu kopurua txikitu egiten da. Ibilgailu eta ordezko piezen sektorean, udalerrri guztiak urte arteko jaitsierak pairatzen dituzte.

Merkataritza sektore osoaren bilakaera aztertuz, hiru hiriburuen eta Barakaldoren kasuak positiboki nabarmentzen direla esan daiteke hauek baitira orain urte bat baino afiliazio kopuru handiagoa erakusten dutenak.

UDALERRIAK. URTE ARTEKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2014KO 4.HIRUHILEKOA

Handizkariak	VITORIA	DONOSTIA	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN	LAUDIO
2013ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	8.251	8.728	14.105	4.515	2.061	2.580	623
2014ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	8.703	9.016	14.301	4.699	2.093	2.557	641
Aldakuntza	%5,48	%3,30	%1,39	%4,08	%1,55	-%0,89	%2,89
Txikizkariak	VITORIA	DONOSTIA	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN	LAUDIO
2013ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	4.469	3.678	5.347	597	1.109	1.351	100
2014ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	4.401	3.687	5.252	599	1.044	1.372	102
Aldakuntza	-%1,52	%0,24	-%1,78	%0,34	-%5,86	%1,55	%2,00
Ibilg. eta ord. piezak	VITORIA	DONOSTIA	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN	LAUDIO
2013ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	1.591	906	1.409	419	145	578	142
2014ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	1.549	887	1.386	378	140	556	104
Aldakuntza	-%2,64	-%2,10	-%1,63	-%9,79	-%3,45	-%3,81	-%26,76
Guztira	VITORIA	DONOSTIA	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN	LAUDIO
2013ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	14.311	13.312	20.861	5.531	3.315	4.509	865
2014ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	14.653	13.590	20.939	5.676	3.277	4.485	847
Aldakuntza	%2,39	%2,09	%0,37	%2,62	-%1,15	-%0,53	-%2,08

6. taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

3 KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN ADIERAZLEAREN BILAKAERA

Tituluak:

- Hiruhileko bilakaera negatiboa da, abenduan aurrerapenak eman baziren ere eta azken zortzi hiruhilabeteetan hazkunde jarraituak eman badira ere.

- 2013 urteko azken hiruhileko datuekin erkatuz, hiru hilabete honetako datuek %27,5eko aurrerapena suposatzen dute KKA

URTEA/ HILABETA	KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN ADIERAZLEA	UNEKO EGOERAREN ADIERAZLEA	IGURIKIMENEN ADIERAZLEA
13/01	55,70	36,20	75,20
13/02	50,70	32,10	69,20
13/03	52,10	35,00	69,20
13/04	56,70	37,70	75,60
13/05	50,80	35,80	65,80
13/06	61,80	45,90	77,60
13/07	63,30	47,40	79,20
13/08	68,60	53,40	83,70
13/09	69,80	54,10	85,40
13/10	65,30	51,20	79,50
13/11	72,30	54,40	90,10
13/12	71,00	53,80	88,20
14/01	77,70	62,00	93,40
14/02	71,50	55,00	88,00
14/03	76,30	60,40	92,20
14/04	82,00	66,20	97,70
14/05	84,90	72,20	97,60
14/06	89,30	74,40	104,20
14/07	88,90	77,00	100,80
14/08	87,70	77,00	98,40
14/09	89,30	76,30	102,20
14/10	86,80	74,20	99,30
14/11	83,60	71,20	95,90
14/12	90,60	76,80	104,30

7. taula. Iturria: CIS. Lantzea: Ikusmer. Azken 24 hilabeteak.

Urriko KKA 86,8 puntutan kokatzen da, aurreko hilabeteko datuarekin alderatuz 2,5 puntu azpitik. Beraz, abuztuan eta uztailan gertatu zen moduan (irailean goranzko joera azpimarratzekoa da), KKA atzerapausua ematen da. Azken emaitzak KKA ekainean lortutako balioen azpitik uzten du. Hilabete honetako jaitsierak KKA eraikitze kontuan hartzen diren 2 kontzeptuei modu berdinean eragiten die: Uneko egoeraren adierazlea 2,1 puntutan jaisten da eta igurikimenen adierazleak 2,9 puntutan atzera egiten du. Bi kasuetan, hartzen dituzten balioak ekainean izandakoen azpitik daudela aipatzekoa da. Dena den, aurreko urteko hilabete berdineko datuekin erkatuz aurrerapenak esanguratsua izaten jarraitzen du, KKAren hazkundeak 21,5 puntu lortzen ditu, uneko egoeraren balioztatzean 23 puntutako igoerarekin eta igurikimenean 19,8ko irabaziek. Portzentaje mailan, azken hilabeteetan gertatu izan den moduan emandako bilakaeraren profila ez da ain homogeneoa: KKA urrian %24,8an igotzen da, uneko egoeraren balioztatzearen %31ko eta igurikimenen %19,9ko hazkundeen ondorioz.

Azaroko KKA 83,6 puntutan kokatzen da, aurreko hilabeteko datuarekin alderatuz, 3,2 puntu azpitik. KKAren atzerapausu honek uztailetik gertatzen ari den jaitsiera zorrotzen du (aurretik komentatu dugun moduan irailean puntualki eten egiten bada ere) eta adierazlearen balioa maitztean lortutako balioen azpitik gelditzen da. Azaroko jaitsierak KKA eraikitze kontuan hartzen diren 2 kontzeptuei


modu berdinean eragiten die: Uneko egoeraren adierazlea 3 puntutan jeisten da eta igurikimenean adierazleak 3,4 puntutan atzera egiten du eta hartzen dituzten balioak maiatzean lortutako balioen azpitik kokatzen dira. Gainera, uneko egoeraren adierazleak zein igurikimenean adierazleak azken bi hilabeteetan atzerakada patroia irudikatu dute, egoera ekonomiko orokorraren eta enpleguaren balioestean jaitsiera esanguratsuekin (kontuan izan behar da etxeen egoeraren adierazleak euste lanetan laguntzen duela). Hala ere, aurreko urteko hilabete berdinarekin alderatuz, aurrerapenak esanguratsua izaten jarraitzen du. KKAren hazkundeak 11,3 puntu hartzen ditu, uneko egoeraren balioztatzean 16,8ko eta igurikimenean 5,8ko irabaziak izanik. Portzentaje mailan, 2013ko azarotik kKA %13,5ean igotzen da, uneko egoeraren balioztatzearen %23,6ko eta igurikimenean %6ko hazkundeen ondorioz.

Abenduko KKA 90,6 puntutan kokatzen da, aurreko hilabeteko datuarekin alderatuz, 7 puntu gainera. KKAren aurrerakada garrantzitsu hau uneko egoeraren balioztatzea 5,6 puntutan igotzen delako eta igurikimenean zenbatespena 8,4 puntu lortzen dituelako ematen da. Hau horrela, KKAk abenduan azken 5 hilabeteetan galdutako tokia berreskuratzen eta 2014 urtea balio maximoekin bukatzen du, igurikimenean adierazleak bilakaera berdina jarraitzen badu ere, uneko egoeraren adierazleak, uztailean eta abuztuan lortutako balioen azpitik gelditzen da. Aurreko urteko hilabete berdinari dagokionez aurrerapenak esanguratsua izaten jarraitzen du. KKAren hazkundeak 19,6 puntu hartzen ditu, terminu absolutuetan uneko egoeraren balioztatzean 23ko eta igurikimenean 16,1eko irabaziak izanik. Portzentaje mailan pairatutako bilakaeraren profila oso antzekoa da: KKA %21,6an igotzen da, uneko egoeraren balioztatzearen %29,9ko eta igurikimenean %15,4ko hazkundeen ondorioz.

KKAren hiruhileko bilakaerari dagokionez, azken hilabeteetan izandako aurrerapena kontuan izanik ere, bilakaera negatiboa aurkezten du, azken 8 hiruhilekoetan izandako joera positiboarekin bukatuz. Laugarren hiru hilabeteko KKAk, aurreko hiruhilekoarekin erkatuz, 1,6 puntu galtzen ditu, bereziki uneko egoeraren balioztatzeetan emandako jaitsieren (-2,7) eta igurikimenean adierazlean emandako beherakada motelagoen ondorioz (-0,7). Aurreko urteko hiru hilabeteko berdinarekin alderatuz, hiruhileko honetako datuek %27,5eko aurrerapena ekarri dute, uneko egoera %44,6an eta igurikimenean %17an igo baitira.

Bukatzeko, 2014 urteko batezbestekoa aurreko 6 urteetako batezbestekoen gainera kokatzen da eta 2007ko balioetatik hurbil. Dena den, igurikimenean batezbestekoa (97,8) 2010 eta 2011 urteetako batezbestekoen nahiko antzekoa da, desberdintasuna uneko egoeraren adierazleak eskaintzen duen batezbestekoan dago, urte hoietan lortutakoaren 25 puntu gainera baitago.

2. grafikoan konfiantzaren 3 adierazleen bilakaera azaltzen da, 2012ko urtariletik gaur egunera arte.



2 Grafikoa. Iturria:CIS. Lantzea: Ikusmer.

4 KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEAREN BILAKAERA

Tituluak:


- EAEko KPIak lehen aldiz jasoko du urte arteko tasa negatiboa abendu batean.
- Petrolioaren merkatzeak kontsumoko prezioen bilakaera baldintzatu du.

URTEA/ HILABETA	INDIZEA	HILEKO ALDAKUNTZA	AURTENGO ALDAKUNTZA ORAINGOZ	URTEKO ALDAKUNTZA
14/10	104,8	0,7	0	0,2
14/11	104,8	0	0	-0,1
14/12	104,1	-0,7	-0,7	-0,7

Unitatea: 2011 Oinarria=100

8. taula. Iturria: Eustat.Lantzea: Ikusmer.

Gaur eguneko albiste ekonomikorik harrigarriena petrolioak nazioarteko merkatuetan ezagutu duen merkatze azkarra da, urtarrileko lehen egunetan 50 dolarreko langaren azpitik kokatzera iritsi baita. Urte arteko tasan, %40 inguru jaitsi da bere salneurria. Horrek kontsumoko prezioen bilakaera baldintzatu du, berriro ere tasa negatibotan kokatu baitira. Halaber, INEk Estatuarentzat aurreratu duen datuak pentsarazten du 2014an, lehenengo aldiz serie historikoan, abendu batean prezioak jaitsiko direla. Hondar inflazioak eragin du jaitsiera hori, baina azpiko inflazioa ere oso balio apaletan (%0,2) mugitzen da. Beraz, epe laburrean ez da KPIaren gorakadarik espero.



3. Grafikoa. Iturria: Eustat. Lantzea: Ikusmer.

INEk argitaratu dituen azken datuen arabera, EAEko KPI indizea tasa negatiboetara itzuli zen berriro azaroan (%-0,1), aurreko hilekoan jaso zuena baino hiru hamarren beherago dagoelarik. Jaitsiera horrek amaiera ematen dio urte arteko gehikuntza tasa txikiak eskuratzeko bi hilekoko epealdi laburrari. Kontsumo prezioen oraingo beherakada horren arrazoa, neurri handi batean, energiako produktuen merkatzea da, hala erregaiena nola argindarrarena. EAEko abenduko datua oraindik

ezagutzen ez den arren, INEk Estatu osorako argitaratu duen aurrerapenak (%-1,1) pentsarazten du iazko azken datua gorago aipatu den %-0,1 hartatik baino askoz ere beherago kokatuko dela. Susmo hori baieztatuko balitz, serie historiko osoan -EAEko seriea 1979. urtean hasi zen- lehenengo aldiz KPI indizea negatiboa izango da abendu batean.

KPI TALDE NAGUSIAK			
URTE ARTEKO ALDUKUNTZA TASA - 2014ko AZAROA			
	Euskadi	Espainia	Euro Gune
INDIZE OROKORRA	-0,1	-0,4	0,3
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	0,4	0,2	0,0
Alkoholodun edariak eta tabakoa	-0,1	0,4	2,2
Jantziak eta oinetakoak	0,4	0,4	0,4
Etxebizitza	0,8	0,0	0,5
Etxeko hornidura	-0,1	-0,6	0,0
Medikuntza	-0,2	-0,3	1,0
Garraioak	-1,0	-1,7	-0,5
Komunikazioak	-5,7	-5,8	-2,5
Aisia eta kultura	-1,2	-1,5	-0,4
Irakaskuntza	2,8	1,3	0,9
Hotela, kafetegiak eta jatetxeak	0,4	0,5	1,6
Beste batzuk	1,2	1,2	0,8

9. Taula. Iturria: EIN.

Dagoeneko adierazi denez, petrolioaren merkatzeak oso paper erabakigarria jokatu du kontsumoko prezioen jaitsieran. Hain zuzen ere, abenduan petrolio gordinaren upelaren salneurria 63 dolarretan eta 51 eurotan kokatu zen, hileko batez bestekoan, urte arteko aldakuntza tasa %-43,2, dolarretan neurtuta, eta %-36,9, eurotan, izan zelarik. Are gehiago, ez dirudi prezioen jaitsiera amaitu denik eta urtarrileko lehen egunetan beheranzko joera areagotu da 50 dolarreko langaren azpitik kotizatzen iritsi arte. Prezioen beheranzko shock horren arrazoiak AEBek, ekoizle gisa, jokatzen duten papera eta herrialde petrolio esportatzaileek prezioa egonkortzeko ekoizpena murriztea erabaki ez izana dira.

KPIren jaitsiera gorabehera handiak pairatzen dituen produktu baten merkatzeak, hots, energiarenak, eragin zuenez, azpiko inflazioak nahiko bilakaera egonkorra erakutsi zuen abenduan eta, are gehiago, hamarren bat igo zen, %0,2ra arte. Hala ere, balio horiek serie historikoaren apalenetarikoa dira, beraren hiru osagai nagusietatik bi, energiari gabeko industria ondasunak (%-0,3) eta elikagai landuak, edariak eta tabakoa biltzen dituen (%-0,1), tasa negatibotan kokatu zirelako. Halaber, zerbitzuek, azpiko inflazioaren hirugarren osagaia baitira, oso balio apalak jasotzen jarraitu zuten (%0,6).

Kontuan hartuta petrolioaren merkatzeak prezioen bilakaera berriro baldintzatu zuela, etxebizitza eta garraioa izan ziren aurreko hilekoaren aldean gehien apaldu zirenak. Hain zuzen ere, lehen taldeak puntu bat eta bi hamarren gutxiti zuen bere urte arteko tasa (urriko %2,0tik azaroko %0,8ra igaro zen), argindarraren salneurria jaitsi zelako. Beste aldetik, garraioaren jaitsiera sei hamarrenekoa izan zen (%-0,4tik %-1,0ra pasa zen), erregaien prezioa merkatu zelako. Gainontzeko taldeek oso aldakuntza txikiak ezagutu zituzten aurreko hilekoaren aldean eta ia-ia urriko tasa berak markatu zituzten azaroan. Salbuespen bakarra medikuntzaren taldea izan zen, balio negatiboak eskuratu zituelako (%-0,2), behin botiken koordainketa ezartzeak ekarri zuen goranzko eragina desagertu eta gero.